

...eta

Kitto!

881 zkio.
2014-III-7



Akabo Aratosteak!!!



*kontsultu lezazu zure optikan karpinaren esangaririk.
Zingiro da beste eskeritza bazuelen platu.

mō betaurrekoak
erreflexuen
aurkako
kristalekin **67€**

guztiak zuretzat

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

R.P.S. W. HORTILLG.



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Justu albiste bat: gipuzkoar bat hil da Burgosko kartzelan. Puertotik baino km. gutxiagotan, baina haren senideek ere gogo belztasun berberaz egingo zuten bidaia; eta izena ere ez dakigu. Baina, tira, pankarta edo afixarik ere ez zaio egingo. Preso sozial esaten diegu. Gezurra. Horiek soilik preso dira, gizartetik at dauzkagu"

(MIKEL ELORZA, KAZETARIA)

"Emakume guztiak ez daude berdintasunaren alde, ezta gizon guztiak kontra. Gizon eta emakumeon arteko eskubide berdintasunaren aurka daude gizonen lehentasuna aldarrikatzen dutenak eta bizimodua aldatu nahi ez duten emakumeak"

(ARANTXA URRETABIZKAIA, KAZETARIA)

"Bilboko Indautxu plaza kalez inguratuta dago, eta plazaren inguru guztian zuhaitz ilara bat jarriko balitz, hiru gradu jaitsi ahal izango zen bertako tenperatura zuhaitzek sortuko luketen itzalaren ondorioz. Eta kutsadurak ere beheara egingo luke"

(JUAN ANGEL ACERO, TECNOLIAKO IKERTZAILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

KAKIA.- Gogaikarria, aspergarria, amorrogarria. "Zeregin kakia, pitxoikuan kaxan, atakadore zulua egittia".

KAKO.- Gantxua, pieza okertu eta askotan punta zorrotzekua, gehixenetan metalezkua, zerbait txingilizka ipintzeko, zerbaiti eusteko edo heltzeko. Zentzu figuratuan, arazoa, eragozpena, aitzakia. Gantxo itxurakoa. "Kakodun haga batekin hartu biharko dittuzu gorengo sagarrak". "Beti dauka harek kakuren bat, gauzia luzetzeko". "Surra kakua daka".

eskutitzak

ERREKATXUKO ESPALOIAK GARBITZEKO ESKAERA

Urtarrilaren 21ean Pegoran eskaera aurkeztu nuen, Errekatsu kalean, iturritik Sansaburuko ikastolara bitartean dauden espaloi biak ur-mahukarekin garbitu ditzaten, bertan dauden aingira-belarengatik asko labantzen dutelako. Badirudi pasa-

tu direla, baina berde horrek hor jarraitzen du. Horregatik, ganoraz berriz pasatzea eskatu nahi dut, arazoa ez delako konpondu eta oraindik erortzeko arriskua dagoelako.

MARIAJE IRURETAGOENA

EAJ-PNV-K ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIO EIBARKO OSTALARITZARI ARATOSTEETAN IZAN DUEN INPLIKAZIOA DELA-ETA

Eibarko EAJ-PNV-k herriko ostalaritza zoriondu nahi du beste behin gure hiriko Aratosteetan parte hartu dutelako eta euren imaginazioa eta ahalegina partekatu dutelako eibartar guztiokin. Eguraldiak ezer gutxi lagundu badu ere, Eibarren parte-hartze handia izan da jai hauetan eta herritarrek zein tabernek euren onena eman dute.

Eskertzekoa da urterik urte tabernariak egiten duten ahalegina euren lokalak kokojantzi eta jai alai horiei kolorezko ikutua emateko. Oraingoan, batez ere, Bista Eder eta Errekatsu kaleetako ostalarien lana aipatuko genuke, kale horietako eska-

parateetan Aratosteak abiapuntu hartuta mural handiak ipintzeko iniatitaba hartu dutelako. Eki-men horrekin ondo baino hobeto girotu dute inguru guzti horren irudia.

Horrelako ekimenak beharrezkoak dira gure jaiak eta gure kaleak alaitzeko bidean. Gainera, badirudi kuadrila eta familia osoak kokojantzeko joera gero eta handiagoa dela, eta baita ume eta helduek gero eta gehiago gozatzeko ideia eta janzkera horiekin.

Eskerrik asko eta horrela jarraitu.

EVA JUEZ GARMENDIA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Martxo betia Berreibar Kulturalarekin

Martxorako programazio betia preparamau dabe Berreibar Ekimen Kulturalak. Atzo bertan eraikin industrial hibriduen eta erabillera industrialetan densidadia berreskuratzeko joeren inguruko hitzaldixa egin zan Portalean eta datozen egunotan be beste hainbaten inguruan berba egitteko beste hitzaldi batzuk egingo dira: datorren asteeko eguenian (13an) Urretxuko Irimo industrialdiaren berreskurapenez jardungo dau Ibon Salaberria arkitekto eta irakasliak Urretxutik etorriko diran hainbat ordezkarirekin batera (19.00etan Portalean). Eta hillaren 20xan Carlos Abad enpresarixo eibartarrak "La mochila del emprendedor" izenburukua emongo dau eta, jarrai-

xan, Gustavo Laskurainek nazioartekotasunari buruzko hausnarketia egingo dau.

Paisajismo Lehiaketia

Hortik aparte, beste ekimen batzuk antolatu dittue, tartian Paisajismo lehiaketia. Industriarekin zerikusixa daken Eibarko hainbat tokitarako proposamen paisajistikuak jasotzeko asmuarekin deittu daben lehiaketan parte hartu nahi dabenak datorren astelehenetik aurrera eta apirillaren 22ra arte eukiko dabe izena emoteko aukeria (informazio guztia berreibarkulturala.wordpress.com helbidian). Proiektuen artian bost aukeratuko dittue, maiatzian erakitzen hasteko asmuarekin.



Bost proiektu onenak aukeratu eta maiatzian egitten hasteko asmua dake.

Hekimen-Udalbiltza alkarlanerako hitzarmena

Hekimen euskal hedabidien alkartiak eta Udaltzita Euskal Herriko udal eta udal hautetsixen biltzarrak 2014-2015rako alkarlanerako hitzarmen estrategikua siñatu eben aurreko astian. Akordixua erakunde bixetako lehendakarixak, Iban Arantzabalek (Hekimen) eta Mertxe Aizpuruak (Udaltzita) siñatu eben eta bertan jasotakuaren arabera, Hekimenek "Euskal Hedabidien Behategixa" izeneko proiektua martxan jarriko dau 2014-2015 tartian. Eta egitasmo hori gauzatu ahal izateko, Udaltzitzak 15.000 euroko laguntza bideratuko dau aurten, Euskal Herriko Garapen eta Kohesio Fondoaren bitartez. Horrekin batera, Hekimenek Udaltzitzaren Adituen Sarean parte hartuko dau.



Mertxe Aizpurua eta Iban Arantzabal, siñadura ekitaldixan.



Abundio Maestoren erakusketia

Aurreko barixakutik Abundio Maestro artista eibartarraren taillak eta pintturak ikusi leikez Untzagako jubilaue etxeko erakusketa aretuan. Hillaren 16ra arte martxan izango dan erakusketia 19.15etatik 21.15etara bisitau leike astegunetan eta zapatu eta domeketan, barriz, 12.00xetatik 14.00xetara zabalduko dabe.



...eta kitto!-ren urteko batzarra

Urteko batzar nagusixa martxuaren 20rako deittu dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Alkartiaren egoitzan, Urkizu, 11 solairuartian egingo dan batzarrarendako lehelengo deialdixa 19.00etarako egin da eta, ordu horretan bazkidien erdixa baiño gitxiago agertzen bada, billeria 19.30xetan hasiko da, bertaratzen diran bazkide kopurua edozein dala be. Egun horretarako gai zerrendia hauxe da: 2013ko gestio-balanzia; 2014rako proiektuak, bazkide kuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta proposamenak; zuzendaritza barrixa aukeratzia eta funtzionamendua; eta piskolabisa.

Humboldt sarixa jaso dau Enrike Zuazuak

Enrike Zuazua, Basque Center for Applied Mathematics eta Ikerbasque zentruetan diharduan matematiko eibartarrak nazioarte maillan garrantzi haundixa dakan Alexander von Humboldt inbestigaziño premixua jaso barri dau.



Errekonozimendua aurretik zittuan beste premixo batzuren zerrendia osatzera dator: bestiak beste, Matematika eta Informaziño Teknologixa arluetako Espaiña maillako Inbestigaziño Premixua (2007) eta Zientzia eta Teknologixia Euskadi Sarixa (2008) dakaz Zuazuak.

Hogei urtetik gora Madrillen emon zittuan Zuazuak 2008xan BCAM (Basque Center for Applied Mathematics) dalakuaren sorreran jardun eban eta gaur egunian katedra bat zuzentzen dau bertan, bestiak beste Deribatu Partzialetako Ekuaziñuak, Anlisi Numerikua eta Kontrolaren Teorixia ikertuta. Horrekin batera, Ikerbasque-ko ikerlarixa be bada.

Belgikatik Armerixa Eskolara bisitan

Datorren astian, astelehenetik barixakura bittartian Belgikako Tihh Hasselt ikastetxeko dozena bat ikasle-irakasle hartuko dittue Armerixa Eskolan, ikastetxiak eta Tennecok alkarlanian garatzen daben "Working in your neighbourhood: it's Europe" proiektuaren barruan antolatutako bisitan. Mekanika eta Elektrizidade alorretako ikasliak eta irakasliak izango dira eta Eibarren emongo dittuen egunetan Armerixan hainbat klase hartzeko aukeria eukiko dabe. Horrez gaiñ, Euskadiko hainbat toki eta enpresa ezagutzeko aprobetxauko dabe biajia. Gaiñera, astelehenian 13.00etan Udalak harrera ofiziala egingo detse eta eguazten arratsaldian Eibarko Armagintza-zen Museora juango dira.



autuan

SANJUANETARAKO POSTUAK

San Juan jaixetan salmenta-postua jarri nahi dabenendako eskaerak aurkezteko epia zabaldu dabe. Interea dakenak apirillaren 30era arte eukiko dabe horretarako aukeria, Pegorara juanda.



IBILGAILUEN ZERGA

Trakziño mekanikodun ibilgailuen gaiñeko zerga borondatez ordaintzeko azken eguna datorren astelehena, martxuaren 10a izango da.

GURE ESKU DAGO

Ekaiñaren 8xan egingo dan giza-katian parte hartu nahi dabenak metruak erosteko aukeria eukiko dau Kultun (astelehenetik barixakura 11.00etatik 13.00era eta martitzenetan 19.00etatik 20.00etara be) eta Deporren, barixakuetan 19.00etatik 20.00etara.

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen
Zerbitzu
Tekniko onena



www.eitek.net

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04



CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 11 Barne Medikuntza |
| 2 Zirugia | 12 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 13 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 14 Traumatologia |
| 5 Anlisi Klinikoak | 15 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 16 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 18 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |
| 10 Neurologia (BERRIA) | |

asteko
413.000
datua

eurotan etarako dabe
lizitaziñora Txaltxa Zelai-Urki
igogaillurako biharrak:
148,88 kotatik 161,57
kotaraño aillegauko da,
12,12 metroko ibilbidian,
eta geraleku 2 eukiko dittu.
8 lagun/630 kilo hartzeko
ahalmena eukiko dau.

Ikastaruak eta lehiaketia antolatu dittu Gertatuk

Gertatu ekimenaren eskutik hiru ikastaro eta lehiaketia egingo dira datozen egunotan. Kur-suetan parte hartzera animatzen diranak hainbat arlotan trebatzeko aukeria eukiko dabe. BilbaoMakers-en eskutik 16 urtetik gorakuendako Arduino ikastarua eskinduko da Indianokua gaztelekuan martxuaren 29xan (09.00xetan hitzaldixa eta jarraixan, 10.00etan taillarra). Horren inguruko informaziñua eskatzeko eta izena emoteko Pegorara juan leike (martxuaren 10etik 17ra). Preziua 21 eurokua da Eibarren erroldatutakuendako eta 35 eurokua bestiendako. Eta CodeSyntax-ek beste ikastaro bi eskinduko di-

ttu: "Geolokalizaziño Aktiborako Taillarra" (apirillaren 1ian eta 3an, 18.30xetatik 20.00etara, Portalean) eta "Auzolan digitala: Wikipedia editatzen" (apirillaren 8xan eta 10ian, 18.30xetatik 20.00etara, Portalean).

Informaziñua eskatzeko eta izena emoteko datorren astelehenetik aurrera Pegorara jo leike (hillaren 21era arte). Kasu bixetan 10 euro pagau biharko dabe Eibarren erroldatuta dagua-zenak (bestiak 16 euro).

Made in Eibar

Horrekin batera, gure herriko industriarekin lotutako euskerazko dokumental lehiaketia antolatu dabe, parte hartu dabenen-dako azalpenak-eta emoteko ikastaruarekin batera. Klasiak euskeraz emongo dittue Itzamna akademixak (apirillaren 5, 12, 14, 15 eta 16xan) eta izena emoteko epia martxuaren 17tik 28ra bittartian egongo da zabalik.



Gertatu Foroaren aurkezpena iazko urtiaren amaiera aldian egiti eben.

Autopistarako segurtasun neurrixak eskatu dittue

Gipuzkoako PSE-EE alderdixak, Eneko Andueza Batzar Nagusixetako kidiaren bittartez, Larraitx Ugarte sailburuari urgentziatzeko agerraldixa eskatu detsa, Eibarren A-8xak ziherkatzen daben zatixan soiñu eta segurtasun pantallarik ez ipintzeko arrazoiak zeintzuk diran Mugikortasun Bartzordian azaldu deixan. Aurretik be horretarako eskaeria eginda dago, PSE-EE alderdixak zeitiñ Eibarko Udalak 2012xan arazua konpontzeko neurrixak hartzeko eskatziari ekin zetsen-eta, baiña oiñ arte Diputaziñuak ez dau iñolako neurririk hartu, diñuenez "pantalla hórrendako dirurik ez dagualako". Azken hilliotan sarrittan ger-

tatu dira istripuak aittatutako autopista zatixan, azkena aste honetan bertan. Gauzak holan, Anduezak pantallak ipintzeko premiñia azpimarratu dau atzera be, bestiak beste Ubitxa aldian gertatu diran istripuetan autopistatik behera gauzak jausi diralako, eta azpittik jende mordua ibiltzen danez "zeozar larrixa" gertatu leikiala pentsatzen dabelako. Horrekin batera, "autopistako trafikukuak zarata haundi-xa sortzen dabenez inguruan bizi diraneri




traba haundixa egitten detsela" gaiñeratu eban. Bestalde, A-8xan gertatutako istripuen harira sailburuarekin billeria eskatu eban alkatiak aurreko hillian, baiña oindiok erantzunik ez dabela jaso diñue.

LUTXI
BALZATEGI
SALABERRIA



"GORA
BIHOTZA"
eta eskerrik asko

Familiarçen partez



Els Joglars konpainia 1961ean sortu zuenetik, antzerkia eta Albert Boadella eskutik helduta joan dira beti bizitzan aurrera. Astelehenean 19.00etan "Decalogo para un teatro libre" hitzaldia emango du Coliseoan, 37. Antzerki Jardunaldiak zabaltzeko DV Kultur Gelaren eskutik antolatutako solasaldian.

ALBERT BOADELLA (Els Joglars):

"Artistaren askatasuna da publikoak gehien estimatzen duena"

- Datorren astelehenean Eibarren egongo zara hitzaldia eskaintzen. Badakizu Jardunaldien historian lehen aldiz errepikatuko dela hizlaria? Gogoan daukazu Eibarren emandako lehen hitzaldi hura?

Lehenengo hitzaldi hura eman nuenetik urte mordera igaro dira, 26 bat urte oker ez banago. Lehen hitzaldi hura eman nuen sasoian ilehoria nintzen eta akrobaziak egiteko ahalmena ere banuen. Gaur egun, ordea, 50 metroan antxixiketan egingo banu leher eginda amaituko nuke. Fisikoari dagokionez, beraz, aldaketa nabarmena dago, hasteko. Jakina, fisikotik kanpora ere, pentsakeran-eta aldaketak egon dira, urteek aurrera egin ahala hainbat pentsakera eta jarrera leundu eta beste batzuk are gehiago erradikalizatu ditut. Edozein modutan ere, bigarren hitzaldian aurrenekoan baino segurtasun handiagoarekin jardungo dut. Horrenbeste denbora eta gero orduan zer esan nuen ez dut gogoratzen, baina seguruenik sasoi hartan sinesten nituen gauzen inguruan egingo nuen berba. Orditik hona gizartea bera ere aldatzen joan da eta ni ahalik eta egokien moldatzen ahalegindu naiz, bizitza nik parte har dezakedan zer-bait izaten jarraitzeko, bizitzaren ikusle hutsa ez bilakatzeko.

- Antzerki-giroan ibiltzen zaretenen artean nolako oihartzuna daukate Eibarren antolatzen dituzten moduko jardunaldiek?

Aurtengo egitaraua irakurrita, benetan eskaintza zabala dagoela ikusi dut. Hori

ona dela uste dut, topikoetatik haratago jendeari antzerkia bere zentzurik zabalean zer den ulertzeko aukera ematen zaiolako. Izan ere, antzerkia egiteko hamaika modu eta baliabide daude eta horietako asko egitaraua osatzen duten lanetan ikusiko dira.

- Bizitza osoa daramazu antzerkigintzan. Nolako bilakaera izan du antzerkigintzak urte hauetan guztietan? Hobera ala okerrera egin du?

Antzerkiaren aurkezpen, baliabide tekniko eta horrelako beste kontuetan, antzerkia inguratzen duten guztietan egoeak hobera egin du, horretan ez daukat zalantzarik. Jendearen interesak gora egin du, komunikabideek antzerkiari eskaintzen dioten arreta hazi egin da eta telebistak antzerkiarekin amaituko zuela uste genuen sasoi hura aspaldi laga genuen atzean. Baina edukiei begiratu gero, horretan zalantza gehiago daukat. Diktadorearen azken urteetan eta trantsizioaren hasieran, gizaratean gertatzen zen guztia- ren inguruko kezka handia zegoen eta horrek antzerkian isla zuen. Baina urteekin antzerkia moduren batean esateko meta-

fisikoagoa egiten joan da, eragin zuzena galdu du eta satirizatzeko duen ahalme- nean hutsunea igartzen dut.

- Polemika zure lanetako askoren bidelagun izan da, zu kartzelara sartzea ailegatzeraino. Nola egin daiteke aurrera, bidean sortzen joan diren traba guztien gainetik?

Artista batek, edozein generotakoa izanda ere, artista izateko bidean oztopoak behar dituela pentsatzen dut. Gauzak errazegi lortzea ez da ona. Umeekin bezala, oztopo guztiak aldenitu eta dena erraz ematean gaizki hezte besterik ez da lortzen. Horregatik nire aurkariet moduren batean eskerrak eman behar dizkiet, besteak beste norberak egindakoak zerbitutarako balio duela sentiarazten laguntzen dutelako.

- Hala ere, gaur egun kritikarako zein aurkariendako gogo gutxi ikusten da oro har...

Administrazio politikoak kulturaren barruan duen esku-hartzearen ingurukoak ez ditugu behar bezala gaititu. Egiteko moduarengatik-edo, artistari mendekotasun konplexua eragin dio betidanik eta presioaren aurrean amore eman dute askok eta askok.

- Hitzaldiaren izenburua gogora ekarrita, zer behar du antzerkiak libre izateko?

Independentzia, askatasun, argitasun... sena duten artistak, euren beldurrei zein publikoari aurre egiten dakiten artistak, horrek batzuetan arriskua ekar dezakeela jakin arren. Ikusleak artista- rengandik gehien estimatzen duena bere askatasuna da.

"Antzerkiaren satirizatzeko ahalmenean hutsunea igertzen dut"

Debabarreneko Lanbide Heziketa sendo

Debabarreneko Lanbide Heziketa Mahaiaren bitartez ikasketak horiek sustatzeko elkarlanean dihardute eskualdeko Lanbide Heziketako zentro guztiek eta Debegesa garapenerako elkarteak. Aurreko astean Debegesan egindako agerraldian emandako datuen arabera, Lanbide Heziketa ikasten diharduten gazteen kopuruak %15 egin du gora, aurreko ikasturteko matriculazio-kopuruarekin alderatuz. Mahaiko kideen berbetan, "datu horrek eskualdeko Lanbide Heziketaren kalitate bikaina agerian lagatzen du. Lanbide Heziketa lan merkatuaren premietara egokitu da, bereziki krisi ekonomikoa bizi dugun sasoi honetan eta, horregatik, LH-ko titulazioek gero eta eskaera handiagoa daukate".

Debabarreneko Lanbide

Heziketak espezialitate eskaintza oso zabala daukela gogora ekarri zuten ekitaldian: "Gaur egun lan arlo ezberdinetara egokitutako 40 bat formakuntza-ziklo eskaintzen dira gure eskualdean eta horietan eduki teorikoak zein praktikoak lantzen dituzte ikasleek".

#ABIAN azoka

2013ko martxoan lehenengoz egin zen #ABIAN Debabarreneko I. Lanbide Heziketa Azoka, bestalde, urte birik behin egingo dela aurreratu zuten eta lehen edizioak izan zuten harrerarekin pozik agertu ziren: "Hiru egunetan ABIAN azokak eskualdeko bigarren hezkuntzako 600 bat ikasle hartu zituen, baita hainbat guraso, orientatzaile eta formatzatzaile. Oro har, Lanbide Heziketan interesa zuten herritar



ugari erakarri zituen azokak". Azokaren bigarren edizioa 2015ean egingo da.

Bien bitartean, Lanbide Heziketa ezagutzera emateko asmoarekin Ate Irekien Jardunaldiak antolatu dituzte. Horri esker, interesa duen edozeinek ikastetxe bakoitzeko eskaintza bertatik bertara ezagutzeko aukera

izango du. Egutegiari jarraituta, Uni Eibar-Ermua BHI izango da lehena atekak zabaltzen (bihar 11.00etatik 13.00-era, Eibarren zein Ermuan). Datozen hilabeteotan Elgoibarko Makina Erremintaren institutua (IMH), Meka, Debako Arte Eskola, Mutriku BHI eta Armeria Eskola bisitatzeko aukera izango da.



Batxilergoko 2. mailakoak Bartzelonan.



Batxilergoko 1. mailakoak Salamancan.



Startinnova Saria eta irteera bi

Maite Alonso, Maitane Basterra, Cristina Oyarzabal eta Patricia Saiz de Ojer Azitaingo La Salleko 2. batxilergoko ikasleek STARTinnova lehiaketa irabazi dute 16-17 urte bitartekoen mailan, Mireya Jauregibarria tutorearen laguntzarekin lehiaketarako landutako proiektuarekin. Saria eman dien proiektuan giltzak non dauden erraz jakiteko sistema asmatu dute ikasleek: giltz arrunt bati soinu-dispositiboa eta GPS-a ipinita, lokalizatu beharreko giltza 80 metroko erradioan egonez gero soinu bitartez non dagoen jakin daiteke eta, distantzia handiagoetarako, GPS-a erabilia giltzen kokaleku zehatza lor dezakegu. Lehian zeuden hamar proiektuen artean epaimahaiak lehen saria eibartarrei ematea erabaki du.

Bestalde, ikastetxe bereko 1. batxilergokoak Burgos eta Salamancan ibili dira ikasbidaian eta, besteak beste Burgos, Atapuerkako aztarnategia, arkeologi-parkea eta eboluzioaren museoa bisitatzeko aukera izan zuten. Eta 2. batxilergoko ikasleak, berriz, Bartzelonan bidaia kulturala egin zuten. Gainera, bidean Monasterio de Piedra eta bertako urjauziak eta Zaragoza ere ikusi zituzten.

Emakumiaren Naziñoarteko Egunaren bueltan hainbat ekitaldi antolatzen dira urtero, programaziño berezixa osatzeraiño. Oinguan be Emakumiaren Mahaittik hainbat gauza prestau dira, bixarko konzentraziñua tarteko. Topalekuko Emakumien Lan Artistikuen Lehiaketak bigarren ediziñua biziko dau aurtan eta gaur bertan inauguratuko dabe erakusketia. Bestalde, gaurtik be eta martxua amaittu arte zabalik egongo da Portalean "Grafikak" erakusketia, bederatzi andrazkoren lanak jasotzen dittuana. Ez Dok tabernan, bixarko eguna ospatzeko be, emakume abeslarixen omenezko kontzertua eskinduko dabe 23.00etatik aurrera. Hainbat gauza, beraz, egun horren inguruan; baiña komenigarrixa izango litzake egun horren esanahixa urte guztian presente izatia eta gizartian, berandu baiño lehen, gauzak aldatzen juatia eta guztiondako mundu justuaguaren billa jardutia. Bardintasanak bentajak besterik ez dakazelako.

MAR
TXO
AK

EMAKUME LANGILEAREN NAZIDARTEKO EGUNA



Egun bakarrera mugatzen ez dan guztion borrokia biharko leukiana

Badira urte batzuk gure herriko emakumien alkartiak osatiaz gaiñ, euren helburuak bide berian zihozela-eta biltzen hasi zirala. 1980. hamarkadaren bueltan izan zan hori eta orduko Egizan, Goi-Argi,

Marimatraka feminista taldea eta Urkilora moduko taldiak gaur egun Emakumiaren Mahaixa osatzen dabeneri egin zetsen tokixa. Oingo alkartiak, gaiñera, bestelako aberastasuna eskintzen detsa gure herrixari, kanpo-

tik gurera etorrittako beste kultura batekuak be integratzen jakiñ izan dabelako.

Aittatutako sasoi hartako alkarte batzuk eta Eibarko Udalak Emakumiaren Mahaixa sortu eben 1999xan eta, handik bost urtera, 2004an, Andretxea lokal barrixa zabaldu eben Zezenbide kalian. Hortik zuzentzen dira gaur egun emakumiaren alde gure herrixan egitten diran hainbat ekimen. Debabarrenan zabalitzen zan lehelengua izan zan.


Emakumien Mahaixa

Eibarko Udalaren kontsultarako organua da eta helburu garrantzitsua dauka: emakume eta gizonen arteko bardintasuna lortzeko lan egittia. Horretarako, Eibarko Bardintasanaren Planian parte hartzen dabe. Horko partaidiak herriko alkarte eta emakumiak dira, Bardintasanaren Sailleko ziñegotzixarekin (Miren Gallastegi gaur egun) eta Bardintasan Teknikarixarekin (Mari Jose Lasa azken urtioan). Hillero batzen da ma-

hai hori, azken astelehenian, arratsaldeko 17.00etan.

Mahai horretan parte hartzen daben emakumien alkartiak gaur egun honakuak dira: Lacasiun, Altzoa, Pagatxa, Defibel, Safa, Mujeres al Cuadrado eta Emakume Independentiak dira. Bakotxak errealdade desbardiñari erantzuten badetsa be, guztiak dake euren arteko loturia eta "alkarren artian asko aberasten dira".

Andretxearen zeregiña da informaziñua emotia, sensibilizaziñua lantzia, prestakuntza eta orientaziñua eskintzia eta, baita, Jabetze Eskola bultzatzia. Horregaittik diñue "emakume eta gizonen arteko bardintasan harremanak bermatzen dittuan prestakuntza eta informaziñorako gunia" dala. Helburuarekin bat datozen herrittar guztien topaleku eta alkarlanerako espaziua eskintziaz aparte, "jendia- ren inplikaziñua billatzen dabe" bertakuak. Ez hori bakarrik: guztion apartaziñua biharrezko ikusten dabe.



Andretxean, informaziñua emotiaz gain, sensibilizaziñua lantzen da eta prestakuntza eta orientaziñua eskindu.

Izaskun Rodriguez da gaur egun Andretxeko teknikarixa. Beria izan dau beti mundu horren inguruko "preokupaziñua" eta, iaz febreruan hasi eta abendura arte egon eta gero, aurten barriro emon detse aukeria proiektuarekin aurrera egittek. Gu Andretxetik pasatu garenian, berarekin zeguaz hainbat alkartietako ordezkariak, guztiak be aste honetako gauzak antolatzen eta prestu Andretxean bizi daben euren esperientzia kontatzeko. Danak datoz bat "emakume alkartien arluan Eibarrek dakan aberastasuna" aittatzerakuan. "Gaiñera, genero biolentziari aurre egitten be pioneruak izan gara hamen eta badakigu piña egitten erakundiekin lan egitterakuan". Baikortasun horri modu batian aurre egittek, edo bestelako aurpegixa erakusteko, mugimendu horrek dakazen ahultasunarengaittik galdetuta, "jende gazte gehixago ez egotia eta konpromiso falta" aittatzen deszuk Izaskun Rodriguezek.


Naziftoarteko Eguna bixar

Bixarko egunari begira (Martxuaren 8xa, Emakumien Naziftoarteko Eguna), Gallardon ministroaren abortuaren lege barrixari aurre egittia pentsatu dabe, batez be. Hortik juango da ohiko konzentraziñuaren lema: "Nire gorputza. Nire erabakixa". Konzentraziño hori bixar 12.30-xetan egingo da Untzaga plazan. "Hor zirkulu erdixa osatuko dogu eta mezuak ipintzen juango gara". Jarraixan, 13.15etan bertso poteua egingo dabe Amaia Agirre eta Nerea Elustondo bertsolarixekin eta Eibarko Trikitilarixak lagunduta. Gero bazkarixa izango dabe, 14.30xetan. Eta arratsaldian, barriz, aurtengo barrittasunetako bat: "Gure gorputza, gure plazerra" tuppersex-a. Hor informaziñua emotiaz gaiñ, esperientziak alkartrukatzeko aukera izango bada be, "ez da salmentarik egongo. Edukatibua izango da, batez be", diñoskue.

Andretxeatik antolatutako egitaraua, dana dala, ez da bi-

xarkora bakarrik mugatuko. Holan, hillaren 12xan kritika literarixua egingo jako Juan San Martin liburutegixan oihartzun handiko "El Tiempo entre Costuras" liburuari: "Liburutegixan gehixen eskatu daben liburua izan da azken aldixan". Handik hamar egunera, hillaren 22xan, "50 Sombras de Grey" liburu ospetsuaren inguruko taillarra antolatu dabe Andretxean bertan.

Tartian, martxuaren 17xan eta 18xan, beste bi ekitaldi egingo dira: ohikua danez, Antzerki Jardunaldixetako emanaldixa izango da, oinguan "Juana la Loca, la reina que no quiso reinar" lana; eta hurrengo egunian, Egoaziak antolatuta, "Mugarik Gabe Bilboko erakunde indartsuaren hitzaldixa. Joana Etxanok emongo dau, "Derechos sexuales y reproductivos desde una perspectiva internacional" gaiaren inguruan".



16 orduko "Nire emozioak eta ni, aurkitze ar dugin mundua" martxuaren 29tik ekaiñaren 28ra iraungo dau eta zapatuetan emongo da; 18 orduko "Gure gorputza ezagutzen dantza eta mugimendu kreatiboaren bitartez" apirillaren 28tik maiatzaren 26ra luzatuko da; txalaparta ikastaria 18 ordukua izango da, maiatzaren 13tik ekaiñaren 19ra; eta autodefentsa ikastaria, "aurretik be egindakua, baiña oindiokan biharrezkua dana", 12 ordukua izango da eta ekaiñaren 7xan eta 8xan, asteburu baten, egingo da.

Aittatutako ikastaruetan izena emoteko aukeria zabalik dago astelehenetik. Matrikula Pegoran egin leike eta ikastaro bakoetak epemuga bat dauka: "Nire emozioak..." martxuaren 17ra arte, "Gure gorputza..." apirillaren 7ra arte, "Printzesa portaerak" bost egunetan emongo da (maiatzaren 10etik ekaiñaren 21era);



Goi-Argiko emakumiak, ohikua danez, Aratostiak ospatu dittue euren lokalian. Emakumien alkarte aintzindarixa herrixan, ez dago Emakumiaren Mahaixan.

Jabetze Eskolia

Andretxean argi dake oiñ arte egindako biddian Jabetze Eskolak izan daben garrantzixa. Horko esperientziak aberasgarri izan dira emakume askorentzat eta, denboraldi barrirako be, bost ikastaro prestau dittue, martxotik hasi eta ekaiñera arte: 20 orduko "Printzesa portaerak deuseztatzen" bost egunetan emongo da (maiatzaren 10etik ekaiñaren 21era);



JESUS BUSTINDUY HERNANDO

(2. urteurrena: 2012-II-29)

"ZURE irribarrea eta samurtasuna betirako izango dira GURE BIHOTZETAN" -ZURE FAMILIAK-

BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (MARTXOAK 9) EGUERDIKO 12.00etan, SAN ANDRES ELIZAN.



tzaren 23ra arte. Ikastaro guztiak Andretxean edo, bestela, Pegoran emongo dira. Plazak be mugatuak dira eta, horregaittik, hobe da lehenbailehen apuntatzia. Rodriguezek diñoskunez, iaz "La risa como recurso" ikastaruak arrakasta haundixa izan zeban, beste batzuren artian.

Gizonak parte-hartzaille

Andretxean biharrezkua ikusten dabe "emakumiekin batera, gizonazkuek be gerturatzia: emakume eta gizonazko feminista gehixago bihar dittugu". Gizartia aldatzia da printzipale-na euren ustez, "eskolan koe-

dukaziñua bultzatuz eta gaur egungo ikuspuntua aldatzen jua dadin". Siñestuta dagoz desbardintasunak guztiondako kaltia dakarrela esaterakuan: "Emakumia ez da galtzaille barkarra; gizonarentzako sortutako prototipuak be osasun askorik ez detsa ekartzen-eta".

Feminismuari bildurra galdu bihar jakola diñue, "guztiondako mesedegarri izan dan mugimendua dalako". Jende gaztia, gitxiñaka bada be, gerturatzen doiala dioskue, "batez be, Jabetze Eskolari esker". Horren harira, gaur egun pakistandar, nepaldar eta marokoar emaku-

Mugimendu aberatsa da emakumien alkartiana gure herrixan. Etorkiñak be integratu dittu tartian.



me talde baten kasua be ma-haigaiñerutzen dabe: gazteleraz ikasten dihardue eta, horrek

lotuta, integraziño lanian aurrepauso haundixa emon dabe, "bestien ohituraz-eta jabetzeraiño. Txanguak egittiaz gaiñ, sanblasak ezagutu dittue, hamengo soziedade batera sartu ziran kus-kusa jatera...".

Heziketari emoten detse garrantzixa gehixen eta eskolan gure neska-mutillak jasotzen daben edukaziñua eta balorietan sakondu bihar dala diñue. Azken hiru urtiotan, azaruaren bueltan, Euskal Herri maillan antolatzen dan tratu txarren aurkako "Beldur barik" lehiaketan gure herriko gaztiak jaso dittue hainbat sari.

Andretxeako atiak zabalik dagoz Zezenbide kalia. Euren telefono zenbakixa 943-700828 da. Facebook: andretxea.eibar

"GRAFIKAK" ERAKUSKETIA PORTALEAN IKUSGAI

Gaurtik hasitta eta hillaren 30era arte grafika munduan dabilzan bederatzi andrazkoren lanak ikusi leikez Portalean, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Eluska Zabalo, Asun del Pozo, Kontxesi Vicente Isiegas, Julia Matute, Araitx Urbeltz, Izaskun Alvarez Gainza, Izibene Oñederra, Ana Goikoetxea eta Esti Garcia Agirrerren artelanak oso erakusketa anitza osatzen dabe eta, teknikari begira, serigrafixak, litografixak, akuaforteak, fotograbauak, grafika hedatua eta marrazki erraldoiak batu dittue erakusketa aretuan.

Bestalde, II. Lan Artistikuen Lehiaketaren sari-banaketia egingo da gaur Topalekuan, erakusketaren inauguraziñuarekin batera. Ekitaldixa 19.00etan hasiko da eta epai-maixak bertan emongo dau irabazliaren izena.

Bederatzi lan aurkeztu dira aurten eta erakusketia hillaren 16ra arte egongo da zabalik: sarbidia tabernako atetik euki-kodau, tabernia zabalik dagan bittartian ikusteko moduan.




Jorge Imaz Bolinaga
KOMUNITATEEN
ADMINISTRAZIOA
 Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.
 Tlf. 943 53 03 03
imazjorge@hotmail.com

Eskela,
urteurren meza
edo eskertzarik
jarri nahi baduzu
...eta kitto! aldezkarion duzu
akera (943 20 67 76)

 **Funeraria-Ehortzetxe**
Mugica

EIBAR  Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	ELGOIBAR  Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
---	--

Bulegoa Eibarko
erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com
 Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



Agur koko-jantzi jaixari

Egun Zurixan sartu giñan bete-betian Aratostietan. Eguraldixa lagun euki eben umiak eta, horri esker, ikastetxiak aurreikusitta zittuen kalejirak arazo barik egin ziran, herriko kaliak koko-jantzi eta kolorez beteta. Eskoletako ekitaldixak amaittuta, Untzagan segidu eban jaixak, Lisker taldiaren dantzaldixan. Barixaku Erregularrian eguraldixak okerrera egiñ eban eta Kaldereruak euripian ekin bihar izan zetsen urteroko kalejirari. Urkizutik urten eta Untzagaraiño euren abesti eta kantuekin alaittu eben illuntzixa eta, behiñ Untzagako karpan sartuta, Irune Jaio aurtengo jaixetako kartel irabazliaren egilliak pregoia irakorri eban. Afalostian, gabari musikia ipintzen herriko hainbat DJ-k jardun eben. Aratoste Zapatuan egun osuan bota eban eurixa, baiña halanda be umore onian ospatu eban jaixa nagusi eta txikixak eta, azken urtiotako martxan, kuadrilla mordia edarto koko-jantzitta ibilli ziran egun osuan. Gaiñera, San Kristobalgo jai batzordekuak eguardixan ekin zetsen karpa barruko animaziñuari, bestiak beste ardaudastaketia eskinduta. Eta Aratostietako kartel lehiaketako irabazliak ez eze, tabernia dotorien apaindu eben Ez Dok-ekuak be sarixa jaso eben. Domekan atzera be karpa barruan batu zan jende gehixen: ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako play-back lehiaketan hamalau taldek hartu eben parte eta oso giro onian emon eben arratsaldiaren lehen zatixa. Jarraixan, Arno DJ-k umiendako diskoteka bihurtu eban karpia. Eta astelehenian atsedeen pixka bat hartu eta gero, Aratoste Martitzenian eurixa lagun euki genduan barriro eta, horregaittik, Astixaren eskutik umiak lapikuak apurtzen amaittu ebenian, sardiñaren entierro txikixa azken urtietako "txikixena" izan zan, Jainagaren trikilitarixak lagunduta sardiña karpatik etara, udaletxeko arkupietaraiño kalejiran juan eta karparen babes billa aguro bueltau bihar izan ziran-eta. Hamen ikusten ditzuzuen erretratueri begira jaixa errepasatzeko aukera bikaiña dakazue, baiña oindiok gehixago ikusi nahi dabena Facebook-en ...eta kitto! aldizkarixak dakan orrira jo leike (www.facebook.com/etakittoaldizkaria), egun bakotxian egindako argazkixekin osatu ditzugun bildumak bertan topauko ditzuzue-eta.





“Kapital zabalkuntza guk geuk atera behar dugu aurrera”

Hitz horiekin laburbildu zuen herenegun Alex Aranzabal Eibar FT-ko presidentek *“klubak hemendik aurrera egin behar duen bost hilabeteko maratoia”*. Zuzendaritzakoek orain arte geldirik ez badira egon ere, hemendik hilabete batera, apirilaren 7an, abiatuko da kapital zabalkuntzaren prozesua bazkideei deituko zaien Ezohiko Batzarrekin. Aipatutako bilera hori arratsaldeko 19.30etan hasiko da, bigarren deialdian eta, Portalean izan beharrean, Armeria Eskolan egingo da.

Espainiako Kirol Kontseiluko Gorenarekin izandako hartueman guztiak *“legea bete egin behar dela”* izan dute ondorioztat eta, horregatik, klubaren arduradunek *“politikoki zein sozialki jasotako laguntza”* eskertu arren, taldearen inguruan diharduten guztiak mobilizatu nahi dituzte helburua zein den argi jakinda. Horretarako,



J. Miguel Fiallegas eta Alex Aranzabal herenegungo prentsaurrekoan

gainera, klubak lagundu egingo dizkie akzio-erosleei: horietako bakoitzaren balorea 60'10 eurokoa izango bada ere, akzionistek 50 bakarrik jarri beharko dute euren poltsikotik, *“bestea klubak jarriko baitu”*. Zabalkuntzak bi fase izango ditu: lehenengoa apirilaren 9an hasiko da (hor bazkideek bakarrik erosi ahal izango dute) eta, bigarreanean, maiatzaren 9tik aurrera gaur egun bazkide ez direnei ere emango zaie aukera akzioak erosteko. Dena dela, aipatutako batzarrean hartuko dira jarraitu beharreko erabakiak.

Txirindulariak Lizartzan eta Asteasun asteburuan

Debabarreneko txirindulariak arazoak-arazo denboraldi berriari ekin diote eta zapatuan Ereñon izan ziren Lehen-dakari Torneoarentzat baliagarri zen proban. Gogorra egin



zen benetan lasterketa, irten zuten 114 txirindularitik bakarrik 42 helmugaratu ziren-eta. Lizarte taldeko Marc Soler kataluniarrak irabazitako proban, Xabier Bengoetxea (argazkian) izan zen Klub Deportiboko taldearen ordezkari onena, 12. postuan. Bihar Lizartzan izango dute Debabarrenekoek hurrengo erronka; domekan, bestalde, Asteasun izango dira.

Izagirre igerilaria Espainiako txapelketan

Bost egun eman ditu Ander Izagirre Urdat-Urko-tronik-eko igerilariak Pontevedran eta, hain lehiakor izanda, zapore gazi-gozaorekin bueltatu da lortutako emaitzekin. Libre erako 50, 100 eta 200 metroko probetan hartu zuen parte eta distantzia laburrenekoan moldatu zen hobetoen, B finaleko irabazlea izateraino. Saillkapen orokorrean meritu handiko 11. tokian amaitu zuen (6.a bere adinean).



Nekane Muguruza Espainiako txapelduna jiu-jitsun

Kalamua klubeko judokak urrezko domina irabazi zuen Madrilo Villaviciosa de Odon-en jokaturako ekialdeko borroka modalitate horretako Espainiako txapelketetan: meritu handiagoga du, gainera, azken urteko kadetea izanda senior mailako onena izateak.

Dena biribiltzeko, orain arteko txapeldunari irabazi zion finalean: Valentziako ordezkaria garaitu aurretik, Aragoiko eta Kataluniako ordezkariak kanporatu zituen. Muguruzarekin izan ziren txapelketan Eneko Lores, Unai Abasolo eta Arkaitz Garbisu.



Durango foball-zaletuen liga bereganatzekotan

Durangok kolpea eman zuen asteburuan mahai gainean eta, atzetik zuen Txokori 3-1 irabazita, Kirol Jokoa liga amaitzeko bost jardunaldi besterik falta ez direnean bost puntuko aldea kentzen dio gaur egungo bigarrenari, Koskor taldeari. Azken honek 8-0 gaintu zuen Fontaneria Mujika eta, horri esker, orain Txokok bai-

no bi puntu gehiago ditu. Aretok, bere aldetik, azken jardunalditako ezustekoak ematen jarraitzen du eta, ia liga osoa partidurik irabazi gabe egon eta gero, azken lau jardunaldietako lau garai-penek Bar Caserio eta Fontaneria Mujika atzean lagatzea ahalbidetu diote: 13 puntu ditu Aretok, 10 Caseriok eta 9 Mujikak.

Angel Coterillok irabazi zuen Udaberri Saria



Isidoro San Justo taldeko txirrindulariak bi ordu, minutua eta bi segundo behar izan zituen esprintean irabazitako lasterketa bereganatzeko. Denbora berean sartu ziren podiumean lagun izan zituen Oier Ibarguren eta Mikel Alonso: azken honek mendiko sailkapena irabazi zuen eta Ibargurenen taldearentzat, Atracciones Sanz-entzat, izan zen taldekako saria. Probako emakume onena Landu taldeko Lierni Lekuona izan zen.

Urki-Amañako karatekak lehiatzen Unibertsitatean

80 bat karateka bildu ziren Hezkuntza Esparruan eskola kiroleko 3 eta 4 zonaldeko eskualdeko lehiaketan eta euren artean izan ziren Arrateko Andra Mari ikastetxeko Urki-Amaña klubeko zortzi ordezkari. Gehienak benjamin mailakoak baziren ere, alebinetan eta infantiletan lortu zuten podiumera igotzea: horrela, Javier Sotos onena izan zen infantiletan (gerriko berderaino) eta Markel Urionaguena bigarrena izan zen alebinetan (gerriko laranja mailan).



Hierros Anetxeko errugbilariak berriro hirugarren

Aurreko astean Bera-Berarekin galdu eta gero, Ibon Ganzarainek prestatzen duen taldeak 19-12 irabazi zion CRAT Galiziako taldeari. Zelaian zegoen lokatzak joko polita egitea egotzen zuenez, bi taldeetako entrenatzaileek aurrelarien arteko borroka lehenetsi zuten eta, arlo horretan, eibartarrak gehiago izan ziren, egoera estatikoe-tan duten jokoaz baliatuz: nagusi izan ziren melee eta toucheetan. Mikel Meabek, Gaizka Arrizabalagak eta Pablo Carmonak hirutan lortu zuten aurkarien defentsaren lerroa apurtzea eta entsegu bakarra falta izan zitzaizen bonus puntua eskuratzeko.



Bolivia, Txile eta Peruri buruzko ikus-entzunezkoa

Periko Iriondok berak egindako beste bidaietako baten irudiak eskainiko ditu datorren eguaztenean, hilaren 12an, Eibarko Klub Deportiboko lokaletan. Emanaldia 19.30etan hasiko da eta "20-25 minutu inguru" iraungo. "Bolivia eta Txile altiplanotik eta Perun egindako ibilbidea" erakutsiko du egileak.

Bestalde, 32 lagun izan ziren Deporreko mendi batzordeak antolatutako Altzo eta Beteluren arteko irteeran. "5-6 orduko ibilbidea egin eta gero", Alegiko Elizegi sagardotegian berreskuratu zituzten indarrak.

berriak



FOBALLA

Jota Peleteiro eta Gaizka Garitanok Liga Adelanteko otsaileko jokalaria eta entrenatzaile onenen sariak jaso zituzten herenegun. Garitanok hirugarren aldiz jaso du saria. Bestalde, bihar jokatuko den Alcorcon-Eibar partidua ETB1-k eskainiko du zuzenean, 18.00etatik aurrera.

XAKEA

Klub Deportiboko talde biek porrota jaso zuten azken asteburuan. I. mailara igotzeko play-offean Eibarrek 3-1 galdu zuen Hernani B-rekin. Maila Gorenean jokatzen duen A taldeak bina berdindu zuen Arrasaten eta liderrarengandik hiru puntura dago liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan.



AINTZANE CRUJEIRAS (antzezlea) **"Umeek eurendako sortutako musika eskertzen dute"**

Bihar arratsaldeko 17.00etan "Kapsulak" lana eskainiko du Coliseo antzokian Markeliñe konpainia bizkaitarrak, 37. Antzerki Jardunaldien barruan (5 euro). Jon Zabaleta, Bjorn Mendizabal eta Piarres Mendizabal musikoez lagunduta, Aintzane Crujeiras antzezleak ahotsa ipiniko dio musika eta antzerkia euskaraz uztartzen dituen lanari.

- Nolakoa da "Kapsulak" antzezlana?

Antzezlana baino gehiago, umeentzat egindako musika zuzenean eskaintzeko kontzertua da, baina musikarekin batera badago dena lotzen duen istorio bat, abesti eta abesti tartean kontatzen dugun istorioa. Kontakizunean nire laguna den ume bat, Txiki, da protagonista. Istorioko Txiki egunehar zehar egiten dituen gauzak kontatzen ditu, abestien arteko lotura modukoa sortuta. Era berean, abestietako batzuk istorioa osatzen laguntzen dute.

- Eta zelako gauzak egiten ditu ume horrek?

Ba edozein umek egiten dituen eguneroko kontuak: goizean esnatu eta ohetik altxatu, armozua hartu, eskolara joan, jolastu... Momentu horiek guztiak banan-banan sailkatu eta Txiki "kapsula" deitzen dituen kuxetan gordetzen joaten da, gustatzen zaizkionak "G" hizkiarekin eta gustatzen ez zaizkionak "E" hizkiarekin markatuta. Gustatzen ez zaizkionen artean, eskolatik kanpora egin beharreko jardueraz zerrenda luzea osatzen dutenak daude, adibidez.

- Ume askok euren burua Txikirekin identifikatuko dute...

Hori da asmoa eta, egia esateko, ume askok Txikiri gertatzen zaizkion gauza eta egoerak berezko sentitzen dituzte, erraz identifikatzen dituzte. Gainera, abesti batzuetan nirekin batera kantatzeko eskatzen diet umei, istorioaren parte sentiarazten laguntzeko.

- Orain arteko esperientziaren arabera, zeinek disfrutatzen du gehiago, umeak ala helduak?

Publiko familiarrentzat pentsatutako lana da eta biek, umeek zein nagusiek asko disfrutatzen dute: umeek, pailazoan abestietatik kanpora eurendako bereziki sortutako musika entzutera ohituta ez daudelako. Eta gurasoek, umeak hain pozik ikustean eurek ere primeran pasatzen dute. Izan ere, letra umeentzat pentsatuta dago, baina musika helduendako modukoa da eta hori eskertu egiten dute. Jatorrizko lana Kataluniako Samfaina de Colors taldearena da, baina eurek bakarrik abestiek eskaintzen dituzte, baina gure bertsioan Oihana Bartra bertsolariak lanaren egokitzapena egin du eta, besteak beste, antzerki bidez kontatzen dugun istorioa gehitu diogu.



"Euskararen Espektakulue" ikusteko sarrerak salgai

Oihan Vega eta oso harrera ona izaten diharduen "Euskararen Espektakulue" monologo-saioa hartuko ditu Portaleak hilaren 21ean (barixakuan), 19.30etan hasita eta ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Saioa ikusteko sarrerak 3 eurotan ipiniko dira salgai gaur bertan, ...eta kitto! Euskara Elkarteen bulegoan (Urkizu, 11 solairuarekin) eta Kultu tabernan (hilaren 21era arte egongo da erosteko aukera). Oihan Vegak umorea eta sarkasmoa erabilita euskeraren erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatuko ditu ikus-entzuleak. Bakarrizketa komiko-ironikoa musika, kantu eta zineaz lagunduko du eta, publikoaren laguntzarekin, hainbat galderari erantzuten ahaleginduko da: zergatik praktikatzen dugu sexua erderaz? Nork daki euskaraz iraintzen? Eguneroko bizitzan zergatik jotzen dugu horrenbeste erdarara?...



Deporrekoak Udal Artxiboan

Aurreko astean Klub Deportiboko hainbat kide udaletxean egon ziren, hango azken pisan dagoen Udal Artxiboa ezagutzeko bisitan. Artxiboko arduradunek azaldutakoari jarraituta, "artxiboa ikusteaz gain, Eibarko irudi historikoekin osatutako ikus-entzuzko ikusteko aukera ederra ere izan zuten". 2010eko urtarri-lean Udal Artxiboaren instalazio berriak inauguratzearekin batera hasi ziren horrelakoak antolatzen, "horrelakoekin Udal Artxiboa ezagutarazi nahi dugu informazio-iturri eta memoria legez, identitate kolektiboaren izenean jardutearren eta, nola ez, dokumentu-ondarearen zainzaile eta gordetzaile gisa".

Hiru argazki erakusketa

Hileroko martxari jarraituta, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek hiru argazki erakusketa prestatu dituzte beste horrenbeste tabernatan ikusgai ipintzeko: martxoaren 31ra arte Pedro Arriolaren "Japon" izenburuko argazki-bilduma ikusteko aukera izango da El Ambigu tabernan; Portalea tabernan, berriz, Antonio Villanuevaren "Hain hurbil, hain urrun" izenburukoak Cerezo del Rio Tiron, Burgosen dagoen herri horretan egindako argazkiak biltzen ditu; eta Depor tabernan Andres Lozano Del Real-en "As-te Santua" izenburuko argazki erakusketa egongo da martxan hilaren amaiera arte.

Zarzuclaren onena Coliseoan

Gaur 20.30etan Coliseo antzokiko taulak zarzuclarekin gainezka egingo du, genero horri eskainitako antologiari esker. Ikuskizunean estatu mailan oso ezagunak diren hainbat bakarlarik jardungo dute kantuan, besteak beste Miren Urbietta eta Helena Orcoyen soprano euskaldunek, Javier Agullo tenore valentziarrak eta Andres del Pino baritono madrildarrak, Sotto Voce soka-orkestrak eta Joseba Candaudap piano-joleak lagunduta. Gaur-



Sostoa abesbatzak eta Isabel Laspiur eta M^a Karmen Etxeberria pianojoleak kontzertuan parte hartuko dute.

koan, gainera, hainbat abesti eskaintzeko Sostoa abesbatzaren eta Isabel Laspiur eta M^a Karmen Etxeberria piano-joleen laguntza ere izango dute. Ozenki Elkartearen eskutik ailegatuko zaigun emanaldian zati bi bereiziko dituzte: lehen zatian "El duo de la africana", "La Gran Via", "Luisa Fernanda" eta beste zarzuela ezagun batzuetatik aukeratutako piezak abestuko dituzte, Las Bodas de Figo eta Cuentos de Hoffman modukoetatik hartutako beste piezaren batekin batera. Eta bi-

garren zatia "itsas-zaporea" izango duela aurerratu digute antolatzaileek: "La Taberna del Puerto", "Chateaux Margaut y Marina" eta beste batzuk eskainiko dituzte. Sostoa abestuko dituen artean "Jugar con Fuego" (Barbieri), "Alma de Dios" (Jose Serrano) eta "El Grumete" (Emilio Arrieta) daude. Kontzerturako sarrera gehienak aurrez saldu dira, baina azken orduan norbait animatuz gero gaur 19.30etatik aurrera erosteko aukera izango du, Coliseoko txarteldegian (25 euro).

laburrak

PALINDROMO ARIKETAK

A3A



Markos Gimeno Vega

LIBURURAKO LAGUNTZA

"131 AZA. Palindromo ariketak" libururako finantziarioa lortzeko kanpaina abiarazi du Markos Gimeno egileak (www.verkami.com/projects/7741-131-aza-palindromo-ariketak-liburuaren-inprimaketa). Liburuak azken urteetan zerorajaso.com blegean astelehenero plazaratutako palindromo-ariketak bilduko ditu eta, inprimaketarako diru-babesa lortuz gero (40 eguneko epea dauka), maiatzean, Ermuko euskal liburu eta disko azokan aurkeztu nahiko luke Gimeno.

Eguen Zuri lehiaketa martxan

Agurte berri ditugun Aratosteetan argazkiak egiten ibili direnak politenak aukeratu eta Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketan parte hartzeko aukera daukate, lehiaketa zaletu guztiei zabalik dago-eta. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez lau argazki aurkez ditzake, koloretan nahiz zuri-beltzean. Hori bai, aurkeztutako lanak 40x50 zentimetroko euskarri edo passpartout baten gainean eraman beharko dira. Antolatzaileek argitu dutenez, beste lehiaketa batzuetan saritutako lanak ere onartuko dituzte.

Lanak aurkezteko Arrate Kultur Elkartearen bulegora joan beharko da (astelehenetik eguenera, 17.00etatik 19.00etara) edo, bestela, zuzenean tabernan entregatu daitezke (azken eguna apirilaren 1a, martitzena izango da). Argazkiekin batera, itxitako kartazalean lanaren izena, egilearen izen-abizenak eta kontakturako telefonoa idatzita eraman beharko dira. Argazki onenentzat hiru sari banatzea dago aurreikusita (160 euro, 100 euro eta 60 euro, hurrenez hurren).



Bizirik dauden irudiak

Gaur 17.00etatik aurrera XII. Giza Irudien Erakustaldia egingo dute Toribio Etxebarria kalean eta Untzagan, 37. Antzerki Jardunaldien egitarauaren barruan. Jardunaldien antolatzaileak orain dela hamabi urte hasi ziren egitarauaren kale-antzerkiari tartea eskaintzen, aurtengo Jardunaldien aurkezpenean Juan Ortigak esandakoa gogora ekarri "bene-benetako aktoreak diren hainbat gonbidatuta". Bartzelonako M.P.C. Management-en eskutik, gaur arratsaldean gurean izango diren aktoreak eta bakoitzak interpretatuko duen pertsonaia hauek dira: Natalia Sequera (Zibeles), Jorge Balmaseda (Hartza eta Gurbizta), Alex Jurado (aintzinako zalduna), Cristian Hernandez (Predeitor) eta Yolanda (Alien). Denek giza-irudien lehiaketa, jaialdi eta erakustaldietan sari ugari irabazi dituzte eta, betiko moduan, bakoitzak ekarriko duen pertsonaia ikusgarriarekin eibartarrak zur eta lur lagatzeko ahaleginak egingo ditu.





Antzerki Jardunaldiak



**Martxoak 7
barixakua
17.00
Untzagan eta
T. Etxebarrian**

XII. Giza Estatuaren Erakusketa (M.P.C.)

ANTZEZLEAK: NATALIA SEQUERA (Zibeles), JORGE BALMASEDA (Hartz eta Gurbitz), ALEX JURADO (Aspaldiko zalduna), CRISTINA HERNÁNDEZ (Predeitor)

Geldi egotearen artean maisu diren aktoreen proposamen interesgarrienak eskainiko dizkio bostekoak ikusleagoari. Hainbat herrialdeetatik datozen antzezleek hainbat lehiaketetan sari ugari jasotakoak dira, gustokoak izango ditugun pertsonaiei esker.



**Martxoak 8
zapatua
17.00
Coliseoan
50 min. / 5 euro**

"Kapsulak" (MARKELIÑE)

ZUZENDARIA: MARKELIÑE

AHOTSIA: AINTZANE CRUJEIRAS / MUSIKA: JON ZABAETA, BJORN MENDIZABAL

Folk-rock estiloko musika kontzertu honetan, ikus-entzunezko leiho baten bitartez egunerokotasunaren zorientasuna erakutsiko digute. Ikusle gaztea hunkitzea eta erakartzea gain, hain gaztea ez dena nostalgia eta oroitzapenetan biltzea da lanaren helburua.



**Martxoak 10
astelehena
19.00
Coliseoan**

"Decalogo para un teatro libre"

AURKEZLEA: JUAN ORTEGA

HIZLARIA: ALBERT BOADELLA

Bereziki tragikomedian oinarritua dagoen bere antzerkigintza Europa, Estatu Batuak eta Latinoamerikako herrialde gehienetan erakutsi da. Ikerketa eta herrikoitasunaz baliatuz, ukitu pertsonala duen estiloa sortzeaz gain, ikusleagoaren estimua jaso izan du.



**Martxoak 12
eguztana &
Martxoak 13
eguna
20.30
Coliseoan
120 min. / 15 euro**

"El interprete" (MADRE CONSTRIKTOR)

ZUZENDARIAK: ALVARO TATO ETA TAO GUTIERREZ

ANTZEZLEA: ASIER ETXEANDIA

Antzerkigintzako ikuskizun arrakastatsuenetakoa bihurtuta, kontzertu antzeztu honetan, hiru musikari handiren laguntzarekin, Etxeandia bilbotarrak XX. mendean zehar bidaia emozionala eskainiko digu, bere haurtzaroko artista eta kantak gogoratuz.



**Martxoak 13
eguna
17.30 & 21.00
Unibertsitatean
123 min. / 2 euro**

"Coriolanus" (ERRESUMA BATUA)

ZUZENDARIA: RALPH FIENNES

ANTZEZLEAK: RALPH FIENNES, GIERARD BUTLER, BRIAN COX, VANESSA REDGRAVE

Tragedia iragan mendeko 90ko hamarkadan girotuta dago eta, esplizituki aipatu ez arren, gertaera Balkanetako gerran parte hartu zuten edozein herrialdeetan kokatu daiteke. Filma gogorra da eta hiritarrok erakusten dugun portaeraz hausnartzera behartzen gaitu.



**Martxoak 14
barixakua
20.30
Coliseoan
60 min. / 11 euro**

"The Cirque de Legume" (CIRQ. LEGUME)

ZUZENDARIA: PABLO IBARLUZEA

ANTZEZLEAK: JAIMIE CARSWELL, PABLO IBARLUZEA


Ikuskizun komiko/absurdoa da. Aulki bat eta barazki kaxa batekin bakarrik, bi "ergel" Cirque de Soleil-en antzeko ikuskizuna aurkezten saiatzen dira. Emaite ordubeteko eromen hutsa da, historiako ergelena den zirkoan. Emozioa eta sentsualitatea nagusi.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JUNE Amuategi. Lau urte zurekin gozaten! Aner, amatxo eta aitatxoren partez. Gora kintxo, kintxo barrilete!!!



Zorionak, MARKEL Uskola Badiola, bixar urtetxua beteko dozu-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GORKA Bordas, haraiñegun 9 urte egin zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Amaiairen partez.



Zorionak, UNAX, atzo zazpi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, NAIA, haraiñegun 9 urte bete zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat aitatxo, amatxo eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, AIORA, gure printzesa, martitzenian 5 urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, TEO, bixar zazpi urte egingo dozuzelako. Zinto, Marona, aitatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO, eguaztenian bost urte egin zenduaz-elako. Aupa Eibar! Etxekuen partez.



Zorionak, ANE Harritokieta, atzo lau urte bete zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ALAIN, aurreko domekan lau urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GARAZI Egurrola Mugerza, martitzenian bi urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta lagunen partez.



Zorionak, IRENE, gaur zortzi urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AINARA (otsaillaren 24an, zazpi urte) eta ANE (martxuaren 5ian, lau urte). Eibarko amama eta aitaixaren, eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARTXEL Espilla Bilbao, eguaztenian urtia bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, INHAR-en partez. Aupa Eibar!!!



Zorionak, MAIALEN eta BEÑAT! Ze ondo pasau doguzen ifiauterixak, ezta? Laztan potolo bana aitatxo eta amatxoren partez. Muua eta muua!!



Zorionak, AITOR (martxuaren 4an, hiru urte). Eta ongi-etorri, GARI (otsaillaren 25ian jaixo ziñan). Famelixaren partez.



Zorionak, BEÑAT, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Zure arreba MAREN eta famelixaren partez.



Zorionak gure poxpolin bixori: MIREN (otsaillaren 15ian, 3 urte) eta IRUNE (martxuaren 2xan, urtetxua). Aitita eta amamaren partetik. Laztan haundi bat Eibartik Prat de Llobregateraiñok.



Zorionak, amama MARITXU, atzo zure urtebetetzia izan zalako. Muxu bat etxekuen eta, batez be, Ander, Jon eta Lukenen partez.

hildakoak

- Antonio Pelaez Ibañez. 86 urte. 2014-II-26.
- Vicenta Urkidi Zenarruzabeitia. 95 urte. 2014-II-27.
- Cresen Garitaonandia Martinez. 81 urte. 2014-II-28.
- Margarita Mendibe Arrieta. 79 urte. 2014-II-28.
- Lutxi Balzategi Salaberria. 86 urte. 2014-III-1.
- Jesus Lopez Perez. 83 urte. 2014-III-3.
- Jesus Ugarteburu Eizagirre. 84 urte. 2014-III-3.
- Isabel Arevalo Aizpuru. 72 urte. 2014-III-3.
- Consuelo Santos Taborga. 85 urte. 2014-III-4.

jaiotakoak

- Mara Iturbe Cobo. 2014-II-20.
- Hugo Andrade Guillen. 2014-II-24.
- Gari Prieto Quindos. 2014-II-25.
- Juan Valdes Hernandez. 2014-III-1.

BARIXAKUA 7

SARI-BANAKETA

19.00. Emakume Langilearen Egunaren II. Lan Artistikoen Lehiaketako lanen erakusketaren inaugurazioa. Topalekuan.

DOKUMENTALA

20.00. "Zuloak" emanaldia. Gaztetxean.

MEDITAZIO-TAILERRA

20.00. Doan. Reiki zentruan (Bidebarrieta, 60).

ZARZUELA

20.30. "Antologia de la zarzuela". Sotto Voce soka-orkestra eta Sostoa abesbatza. Coliseoan.

JAM SESSION

23.00. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 8

EMAKUMEAREN EGUNA

12.30. "Indarrak bateratuz: nire gorputza, nire erabakia" elkarretaratzea. Untzagan.

13.15. Bertso-poteoa: Amaia Agirre eta Nerea Elustondo bertsolariak eta Eibarko trikitilariak.

14.30. Bazkaria.

18.00. Tuppersex: "Gure gorputza, gure plazerra". Andretxean.

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Turbo". El Corte Ingles-en.

KONTZERTUA

23.00. Emakume abeslarien omenezko kontzertua, Martxoaren 8aren harira. Ez Dok-en.

DOMEKA 9

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Banda. Coliseoan.

ASTELEHENA 10

IKASTEN

16.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

MARTITZENA 11

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Las 7 maravillas de la antigüedad". M^o Jose Noainen eskutik. Armeria Eskolan.

EGUAZTENA 12

TAILERRA

11.00 eta 18.00. Makillajea. Colistar etxea. El Corte Ingles-ean.

EMAKUMEAREN EGUNA

18.30. "El tiempo entre costuras" lanaren literatur-kritika. Juan San Martin liburutegian.

EGUENA 13

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Clonacion y transgenicos". Juan Canales. Armeria Eskolan.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Como transmitir hábitos saludables" hitzaldi irekia, LH-ko ikasleen gurasoentzat. Urkizu ikastetxean.

TAILERRA

18.30. Dieta eta Osasuna tailerra. Nutricion Center etxea. El Corte Ingles-ean.

BERREIBAR KULTURALA

19.00. "Irimo: komunitatea praktikan" hitzaldia. Ibon Salaberria arkitekto eta EHU-ko irakaslea. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ikastaroak


- ✓ **Emakumeentzako Tao Sendagarria (hileroko topaketa)**
Noiz: Martxoaren 15ean. Andretxean.
Izen-ematea: 678068959 / asoc.defibel@gmail.com
- ✓ **UEU-ko udaberriko ikastaroak**
Izen-ematea: 943821426 / www.ueu.org
- ✓ **Reiki**
Noiz: Martxoaren 15ean eta 16an.
Izen-ematea: 665743217.
- ✓ **Arduino ikastaroa**
Noiz: Martxoaren 29an. Gaztelekuan. **Izena:** Pegoran.
- ✓ **Geolokalizazio Aktiborako Tailerra**
Noiz: Apirilaren 1ean eta 3an. Portalean. **Izena:** Pegoran.
- ✓ **Auzolan digitala Wikipedia editatzen**
Noiz: Apirilaren 8an eta 10an. Portalean. **Izena:** Pegoran.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

8an: 17.00, 19.45, 22.30
9an: 17.00, 20.00
10ean: 20.30

"Pense que iba a haber..."
Zuzendaria: Vicente Galardi



(2 ARETOAN)

8an: 17.00, 19.45, 22.30
9an: 17.00, 20.00
10ean: 20.30

"¿Qué hacemos con Maisie?"
Zuzendaria: Scott McGehee



(ANTZOKIAN)

8an: 19.45, 22.30
9an: 20.00
10ean: 20.30

"Monuments Men"
Zuzendaria: George Clooney




(ANTZOKIAN)

9an: 17.00

"Un pez fuera del mar"
Zuzendaria: Aun Hoe Goh





erakusketak

- ✓ **Martxoaren 16ra arte**
EMAKUME LANGILEAREN EGUNAREN II. LAN ARTISTIKOEN lehiaketako lanen erakusketa. *Topalekuan.*
ABUNDIO MAESTROREN talla eta pintura erakusketa. *Untzaga Jubilatut Etxean.*
- ✓ **Martxoaren 20ra arte**
IBONE GARCIAREN margo erakusketa. *Beleko tabernan (Bista Eder, 2).*
- ✓ **Martxoaren 31ra arte**
"GRAFIKAK" emakumeen erakusketa kolektiboa. *Portalean.*
PEDRO ARRIOLAREN "Japon" argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*
ANTONIO VILLANUEVAREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
ANDRES LOZANOREN "Aste Santua" argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
CARLOS TRUKOREN margo erakusketa. *Deika tabernan (San Juan, 1).*
- ✓ **Apirilaren erdialdera arte**
VANESSA ATECA-REN margo erakusketa. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*

lehiaketak

- ✓ **XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa:** Gaia: Aratosteak. Lanak aurkeztea: Arrate Kultur Elkarteak, [apirilaren 1erako](#). Sariak: 160 euro, 100 euro eta 60 euro.
- ✓ **Toribio Etxebarria Sariak:** Lanak aurkeztea: www.toribiochevarria.com
- ✓ **Berreibar Paisajintza Lehiaketa:** Lanak aurkeztea: [Apirilaren 22ra arte](#).

farmaziak

- ✓ **barixakua 7**
 EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatua 8**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 9**
 EGUNEZ **Golkoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **astelehena 10**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitzena 11**
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztena 12**
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguna 13**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 14**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

2014 urte osorako GAUEZ
Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

				7			1
		8	1			3	7
7			5	4			
1						9	
5			7		9		8
		6					5
				7	6		3
6	2			9		1	
9			2				

SUDOKUA

4	6	5	8	7	1	3	2	9
8	2	3	5	9	6	7	1	4
9	7	1	2	3	4	5	6	8
6	3	7	1	4	8	9	5	2
2	8	4	9	5	3	6	7	1
1	5	9	7	6	2	4	8	3
3	4	8	6	2	7	1	9	5
7	9	2	3	1	5	8	4	6
5	1	6	4	8	9	2	3	7

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta trasteroa. Iggogailua. 130 m² erabilgarri edo 156 m² eraikiak. Argitsua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 626-203838 eta 699-495249.
- Amañan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoi itxia. Berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 607-808827.
- Babes ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 75 m². Trasteroa eta garajearekin. Tel. 655-706983 eta 647-720800.
- Pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia eta ganbara. Kalefakzioa. Leiho berriak. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Tel. 671-439939.

1.2. Errentan

- Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.
- Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 625-422170.
- Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 602-838236.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-882295.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Sostoaarren inguruan. Prezio onean. Tel. 630-580010.
- Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
- Lokala alokagai Urkizun. 70 m². Tel. 692-714685.
- Garajea alokagai Abontzan. 15 m². Tel. 619-418315.
- Lokala alokagai Isasi kalean. 18 m². Estudioa ipintzeko edo klaseak emateko aproposa. Tel. 620-608065.
- Taberna alokagai Ipuruan (Egiguren-tarren). Tel. 658-595764.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Esperientzia eraikuntzan. Tel. 632-192408.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-258708.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-395829.
- Geriatria ikasketak dituen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 652-532589.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauze ere. Tel. 618-935929.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauze ere. Tel. 639-020081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 665-322150.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxea zaintzeko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 670-831279.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 654-281645.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-584022.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko eta umeak zaintzeko. Lau urteko esperientzia. Tel. 661-745591.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-265293.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta eraikuntzan lan egiteko. Tel. 651-186934. Carlos.
- Neska eskaintzen da edozein lanerarako. Tel. 690-359554.
- Mutila eskaintzen da lantegiak, supermerkatuak... garbitzeko. Esperientzia. Tel. 616-370323.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 659-513578.
- Gizarte hezitzaile euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 639-942094.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-244397.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako: kamarero, sukaldari, tailerrean... Esperientzia. Tel. 678-294450.
- Neska eskaintzen da arratsaldean edo gauze garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 628-223441.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 697-697372.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-572831.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-221649 eta 634-005760.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. Tel. 649-626975.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-723264.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Jornada erdiz edo orduka. Tel. 680-121252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-466742.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interno. Esperientzia. Tel. 632-987144. Ruiz jauna.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 636-302237.
- Haur Heziketan titulaturako neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Orduka edo egun osoz. Tel. 610-658914.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 696-184323.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. 3 urteko esperientzia ostalaritzan. Tel. 652-700744.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 672-914649.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 654-281645.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta nekazari jarduteko. Tel. 632-423984.

4.2. Langile bila

- Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: davidtubolab@gmail.com
- Kamarero euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: informazioahemen@gmail.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Balay lehorgailua salgai. 2011koa. 7 kiloko karga. Energia-efizientzia: A. Ia berria. 300 euro. Tel. 943-254175.

6.4. Bestelakoak

- Bigarren eskuko DBHko liburuak hartuko nituzke. Gaztelazkoak: Lengua Castellana, Matematicas, Ciencias Sociales eta Educacion para la Ciudadania. Tel. 688-606537.
- Jende bila nabil Eibartik Bilbora (Miribillara) autoz joan eta gastuak konpartitzeko. 08.00etan joan eta 13.45etan itzultzeko. Tel. 626-349397.

SATMOBEL



ZURE ETXEKO ALTZARIEN KONPONKETA ETA GAR-

20 URTEKO
ESPERIENTZIA

KONPONKETAK:

Armairuak, oheak, mahaiak, sofak, butakak, aulkiak, tiraderak, etb.

ORDEZKO

PIEZAK: Bandak, eskulekuak, kaxoi-gidak, sofa-motoreak, ohe-artikulatu motoreak, kanape eralsgarri konpasak, etb.

EGOKITZAPENAK:

Altzariak egokitzen dizkizugu zure etxearen edozein gunera.

ALDAKETAK:

Armairu-barruak, apalategiak, moduloak, etb.

MUNTAIA:

KIT altzariaren muntaia.

GARRAIOAK ETA ETXE-ALDAKETAK

Zure altzariak gehiago iraun dezaten konponbide azkarren eta errazena!!



Eibar - Tlf: 608 076 054

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako **ESPERIENTZIA** dugu.
- Bezeroaren beharretara **EGOKITU**ko gara.



elkartea@etakitto.com

Asko dira gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 **innova**dental
CLINICAS



Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,
implanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [**Azpeitia**]
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com